

ERA Eskola, gurasoentzako trebakuntza Webinar zikloa

1. Saioa: “Gure seme-alabei euskararekin eta hizkuntzekin laguntzearen erronka”.

Hizlaria Iñaki Eizmendi. Data: Azaroak 16, astelehena. 16:00etan euskaraz. 18:00etan gaztelaniaz.

Seme-alabek hizkuntzekin duten harremana aztertuko da modu arin eta atsegin batean. Haurrak eleaniztunak izateko bidean daude, gurasoak haien bidelagun izan daitezke, horretarako aholku eta proposamenak egingen dira, familian seme-alaben hizkuntza-ohiturei oinarri sendoa eskaintzeko.

2. Saioa: “Seme-alaben autonomia, motibazioa eta autoestimua sustatzen”.

Hizlaria Nerea Mendizabal. Data: Azaroak 18, asteazkena. 16:00etan euskaraz. 18:00etan gaztelaniaz.

Haurrek egiten dituzten gauzetan eta euskararekin zirrara aurkitzea, beraien kabuz egitea eta beren buruarekiko segurtasunarekin ikusi nahi ditugu. Batzuetan, eskolako lanak etxean egiteko uneak neketsuak suertatzen dira. Baliabide eta pilulak luzatuko dira eguneroko egoerei aurre egiteko eta garrantzitsuak diren harremanak zaintzeko.

3. Saioa: “Euskara, sareko baliabideak, Google tresnak eta zibersegurtasuna”.

Hizlaria Julen Linazasoro. Data: Azaroak 25, asteazkena. 16:00etan euskaraz. 18:00etan gaztelaniaz.

Gaur egungo egoerak ikasleak eskolako lan asko etxean egitera behartu ditu. Horretarako, Googleko tresnak erabiltzen dituzte. Tresna horiek euskaraz jartzeko eta sareko zenbait baliabide modu egoki eta seguruan erabiltzeko zenbait aholku luzatuko dira hitzaldi honetan.